

FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATZEKO SISTEMA

FEE

Sistema honek familia-errenta kide-kopuruaren eta eraketaren arabera haztatzen du.





FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATZEKO FEE SISTEMA

ARAUKETA

2008

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 LEGEAk, 6. artikuluan, Familia-errenta Estandarizatua (aurrerantzean, FEE) definitzen du.

2012

Uztailaren 24ko 154/2012 DEKRETUAK familia-errentaren estandarizazio-sistema arautzen du, familia-politiken esparruan.

2015

32/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, genero-indarkeriaren biktimak eta guraso/legezko tutore edo harrera-gurasoen desgaitasuna familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientearen esleipenean jasotzen ditu.

DESKRIBAPENA

- Sistema honek familia-errenta **kide-kopuruaren eta eraketaren** arabera haztzen du (gurasobakartasuna, seme-alaba kopurua, desgaitasuna, etab.).
- **Familiei laguntzeko laguntzetan edo zerbitzuetan** aplikatzekoa da, horiek jasotzeko aukera edo jaso beharreko zenbatekoa familia-unitatearen errentak baldintzatuta dagoenean.
- Familia-motei eta -egoerei **tratu bidezko eta zuzenagoa** eman nahi zaie, laguntza jasotzeko errentaren araberrako muga desberdina ezarrita hiru kideko familia batentzat eta bost kideko batentzat, desgaitasuna dagoenean edo familia gurasobakarra denean.

NOLA KALKULATU

$$\text{FEE} = \frac{\text{FAMILIA ERRENTA (Zerga-Oinarri Orokorra + Aurrezpenaren Zerga Oinarria)}}{\text{*FU-ko BALIOKIDETASUN-KOEFIZIENTEA}}$$

*(FU = Familia Unitatea)

FAMILIA UNITATEKO BALIOKIDETASUN-KOEFIZIENTEA

1,5



Ezkontidea edo izatezko bikotekidea

1,3



Ezkontiderik edo bikotekiderik gabekoa

1,3



Genero-indarkeriaren biktima

0,3



FUko seme-alaba bakoitza

0,3



Desgaitasuna duen FUko kidea ($\geq 33\%$)

ADIBIDEAK

1



Bi seme-alaba (desgaitasunik gabe) **duen bikotek** 2,1eko baliokidetasun-koefizientea izango du.

$$1,5 + 0,3 + 0,3 = 2,1$$

FU honen errenta 40.000 eurokoa balitz, koefiziente hauen zenbatespenarekin haren FEE **19.048** eurokoa litzateke.

2



Lau seme-alaba (desgaitasunik gabe) **duen bikotek** 2,7ko baliokidetasun-koefizientea izango du.

$$1,5 + 0,3 + 0,3 + 0,3 + 0,3 = 2,7$$

FU honen errenta 40.000 eurokoa balitz, koefiziente hauen zenbatespenarekin haren FEE **14.815** eurokoa litzateke.

3



Desgaitasuna duen seme-alaba bat daukan gurasoak, tutoreak edo harrera-gurasoak 1,9ko baliokidetasun-koefizientea izango du.

$$1,3 + 0,3 + 0,3 = 1,9$$

FU honen errenta 30.000 eurokoa balitz, koefiziente hauen zenbatespenarekin haren FEE **15.790** eurokoa litzateke.



ERABILERA

FEE sistema hau aplikatu beharko litzateke haietarako sarbidea izateko familia-errenta maila zenbatekoa jasotzeko edo zenbatesteko baldintza gisa kontuan hartzen den **laguntza, hobari edo zerbitzu publikoetan** Euskadiko familia guztiek tratu bera izan dezaten.

HONAKO HAU TOPA DEZAKEGU

- **Familia-errentaren gehieneko muga bakarra.**
- **Familia-errentaren hainbat tarte edo baremo.**

Non aplikatu behar den:



Eusko Jaurlaritzaz



Etxebizitza: etxebizitza publikoa esku-ratzeko, birgaikuntzak egiteko laguntzak, etab.



Osasuna: botiken edo bestelako osasun-zerbitzuen koordainketa.



Hezkuntza: unibertsitateko eta bestelako diru-laguntzak, ikastetxe publiko eta itunduetako ikasleen onarpen-irizpideak, etab.



Enplegua eta Gizarte Politikak: GLL, enplegu-politikak...



Aldundiak



Kultura eta Gazteria: hobariak eta sarbidea udaleku eta kanpaldi eta bestelakoe-tan.



Gizarte Politikak: sarbidea eta laguntzak desgaitasun, menpekotasun eta abarrentzat.



Garraioa eta mugikortasuna: unibertsitate-garraiorako eta abarrerako laguntzak.



Udalak



Ogasuna: Hobariak zerga, tasa edo prezio publikoetan (OHZ, TMIZ, EIOZ, Gainbalioa edo musika eta dantza eskola, udalekua, kirol-instalazio, etab. matrikulak edo kuotak).

Non erabiltzen ari da:



Eusko Jaurlaritzaz



Gizarte Politikak: lan- eta familia-kontziliaziorako laguntzak



Enplegua: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).



Udalak



Ogasuna: udalerrri batzuek hobariak dituzte OHZn, ibilgailuen zergan (TMIZ) eta prezio publiko batzuetan.